

ERABAKIA, 2016ko maiatzaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2016ko otsailaren 19ko gerentearen erabaki bidez deitutako "Mekanikako teknikari espezialista (III. Taldea)" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko.

Gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakiaren bidez "Mekanikako teknikari espezialista (III. Taldea)" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

2016ko apirilaren 1ean onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, erreklamazioak aztertu eta onartutako erreklamazioek eragindako aldaketak egin dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- "Mekanikako teknikari espezialista (III. Taldea)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 4,3 eta 9.2 oinarrietan adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontaktzen.

Leioan, 2016ko maiatzaren 11n

UPV/EHUKo GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

